

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 144/2015 Erabakia, martxoaren 24koa, Arabako Biltzar Nagusietarako 2015eko hauteskundeetako eta 2015eko udal hauteskundeetako elektronikoki kudeatutako hauteskunde mahietako (EKM) kideentzako argibide eskuliburua onartzen duena

Martxoaren 27ko 1/1987 Legeak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Biltzar Nagusietarako hauteskundeak, 7.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Arabako diputatu nagusiak Arabako Biltzar Nagusietarako hauteskundeetarako deialdia egingo du martxoaren 30ean. Hauteskundeak maiatzaren 24an izango dira, haien data eta epeak eta udal hauteskundeak berdina izanik.

Hauteskundeak gardentasuna eta objektibotasuna bermatzeko eta berdintasun printzipioa errespetatzen dela ziurtatzeko, hauteskunde administrazioa eratzen da hauteskunde prozesuetan, hauteskunde batzordeak eta hauteskunde mahaiek osatua.

Hauteskunde mahaiei dagokienez, deia egiten duten administrazioek erabaki dute elektronikoki kudeatutako 90 mahaia (EKM) jartzea, gehienez, Gasteizen; izan ere, administrazio horien asmoa da informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera nabarmen bultzatzea, herritarrek eskura izan ditzaten beraien betebeharrak hobeto gauzatzeko tresnak. Horrelako mahaian erabili beharreko tresnak bereziak direnez gero, mahaikideek eskuliburu espezifikoa jasoko dute izendapenaren jakinarazpenarekin batera. Eskuliburuan, mahaia horietako kideen eginkizunak azalduko dira; hartara, hauteskunde egunean beraien lana behar bezala egiteko informazioa eta laguntza izango dute.

Biltzar Nagusien otsailaren 11ko 2/2015 Foru Arauaren bidez, berretsi egin zen Barne Ministerioak eta Arabako Foru Aldundiak sinatutako hitzarmena. Bada, aintzat hartuta hitzarmen horretan ezarritako lankidetzaren irizpideak eta, zehazki, bigarren klausulako 2.3 atalean xedatutakoa, Barne Ministerioari dagokio eskuliburua idaztea, egitea eta banatzea; hura onartzea, aldiz, Ministro Kontseiluari eta Arabako Foru Aldundiko kasuan kasuko organoari dagokie.

2015eko martxoaren 5eko Erabaki bidez, Hauteskunde Batzorde Zentralak EKMtako kideen eskuliburuaren aldeko irizpena eman du. 2015eko maiatzaren 24ko hauteskundeetan erabiliko da eskuliburua, zein Barne Ministerioak idatzi duen, aginduzko entzunaldiko izapidean Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzaren parte hartzea izanda.

Arabako Aldundiaren barne eremuan, ez dago organorik propio esleituta EKMtako kideen eskuliburu espezifikoa onartzeko. Beraz, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 8. artikuluko 28. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik, eskumen hori Diputatuen Kontseiluari dagokie.

Horregatik, diputatu nagusiaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea, Hauteskunde Batzorde Zentralak aldeko irizpena eman baitio, elektronikoki kudeatutako mahaietako (EKM) kideen eskuliburua, zein erabiliko den 2015eko maiatzaren 24ko Arabako Biltzar Nagusietarako hauteskundeetan eta udal hauteskundeetan.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agindua ematea.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 24a

Diputatu nagusia

JAVIER DE ANDRÉS GUERRA

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria

OSCAR BELTRÁN DE OTÁLORA MARTÍNEZ DE ANTOÑANA